

ASKOREN ARTEAN

# *Euskararen liburu zuria*

(675 orrialde)



ASKOREN  
ARTEAN, 1978,  
*Euskararen  
liburu zuria*,  
Bilbo:  
Euskaltzaindia.

Euskaltzaindiaren gidaritzapean paratu zen liburu hau (Produkzio Batzorde batekin; Euskaltzainditik J. L. Lizundia), SIADECO lantaldeak koordinaturik (X. Agirre, I. Larrañaga) eta Lan Kide Aurrezkiaren sustapen (X. Albistur, M. Lasa) eta erakunde-laguntzarekin.

Lankide anitz izan zuen argitalpenak: 16 idazle, 6 itzultzaile, eta itzulpen guztien begirale bat (D. Amundarain). M. Ugaldek eraman zituen zuzendaritza eta testuaren azken begiratuaren ardura.

“Liburu baten biografia” deritzan sarreran ikus daiteke nola egin zen dena.

***Zetozen erronka berriei egokiago eta jakinaren gainean erantzuteko prestatu zuen Euskaltzaindiak liburu hau (1975-1978).***

***Historialari eta hizkuntzalariez gainera, jakite-alor ezberdinetako lankideak ditu.***

***Euskararen historia sozialaz ari da gehienbat, eta gogoetarako aztergai anitz dago bertan bilduta.***

***EHSaz duen informazio orokor aberatsagatik eman diogu hemen dagokion lekua.***

Koldo Mitxelena-ren lehen hitzek irekitzen dute liburu-a (“Euskararen bide luze bezain malkarrak”), ondoko puntuok ukituz: Euskararen izate ñabarra, berezitasunak eta eraginak, halabehar historiko eta administratiboa, iraupen harrigarria, atzerakada, beranduko erantzun ahula, eragozpenak eta debekuak, eredu batua, aurrerapenak, etorkizuna.

*Lehen* zatiak hizkuntzaren aurkezpen linguistiko, antropologiko eta politikoak eskaintzen ditu (M. Pagola, P. Agirrebaltzategi, J. Intxausti).

*Bigarrenak*, ostera, euskararen kanpo-historia eta euskara idatziaren historia (L. Villasante), eta ahozko literaturarena (J.M. Lekuona).

*Hirugarren* zatiak euskararen bizitza alde ezberdinetatik baldintzatu duten eragin sozialak ematen dizkigu: sozioekonomikoak (K. Larrañaga), soziokulturalak (J.M. Barandiaran, J.M. Satrustegi), politiko-administratiboak (G. Monreal, M. Rica), legezkoak (J. Urrutia) eta euskarak Estatutuetan izan zuen trataera (J. M. Castells).

*Laugarren* zatiak, nazioarteko Erakundeetan eta Estatu ezberdinetan hizkuntza ez-ofizialei buruz hartutako erabaki ofizialak (J.A. Obieta) eta hainbat herritan hizkuntza zapalduak berreraikitze-egindako ahaleginak (J.L. Alvarez Enparantza “Txillar-degi”).

*Bosgarren* zatiak, azkenik, elebitasunari buruzko oinarriak eskaintzen ditu (M.J. Azurmendi).

Badago gaztelaniaz ere,  
***El libro blanco del euskara***  
izenburuarekin.  
[Euskaraz. Gaztelaniaz](#)